

## BERGARAKO UDALA

### Begarako Udaleko funtzionarioen plantillan hutsik dagoen Berdintasun teknikariaren plaza jabetzan betetzeko deialdia. Oposizioaldiaren inguruko jakinarazpenak

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egin dutenei jakinarazten zaie epaimahaia osatu eta honako erabakiak hartu dituela:

Oinarrietan jasotako 7.1.2 oinarriak diotenari jarraituz eta prozesuarekin lehenbailehen hasteko aukerak aztertuta, aurreikusten diren ariketen hurrenkera aldatu egin da.

Hortaz, jakinarazten da:

1.- Hautaketa prozesuari hasiera emateko lehenbizi egingo den ariketa izango dela:

— Laugarren ariketa. Trebetasun edota nortasun probak, lanpostuaren profilari egokitzeari buruzko proba. Derrigorrezkoa eta baztertzaila hautagai guztientzat.

Hautagaiak lanpostuaren profil profesiografikoari eta bete beharreko funtzioetara nola egokitzen diren ebaluatza bideraturiko gaitasun eta nortasunari buruzko zenbait proba psikotekniko egitea izango da, elkarrizketarekin batera.

Laugarren ariketa honi berrogei (40) puntu emango zaizkio gehienez, eta hogeita bost (25) puntu eta ariketa bakoitzari emandako puntuazioaren erdia bederen lortu beharko da gainditzeko eta prozesuarekin jarraitzeko.

Bertan jasotakoari jarraituz, derrigorrez egin beharreko ariketak izango dira:

- 1.- Test izaera izango duen ariketa(k) izangai guztiek batera egingo dute/dituzte: 2021eko ekainaren 25ean goizeko 10:30ean.
- 2.- Elkarrizketa izaerarekin egingo dena hurrengo asteko egun batean, egun horretan jakitera emango den hurrenkera eta ordutegian egingo dira.
- 3.- Egingo diren ariketekin neurtuko diren ezaugarriak aurreko egunetan emango dira jakitera, WEB orrian eta iragarki taulan argitaratuta.
- 4.- Bigarren ariketa 4. hizkuntza eskakizunari dagozkion frogak egitea izango da. Uztailako deialdian Araban sartzeko eskaera egingo da eta aukerarik balego 4. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta ez dutenek deialdi horretara joan beharko dira.
- 5.- Egin beharreko ariketen artean ahoz edo banan-banan egin beharreko ariketarik balego, zozketa bidez erabaki da lehen abizena **E letratik** hasten zaien izangaiekin hasiko direla.
- 6.- Oposizioaldiko ariketa guztiak edo prozesua bera abuzturako bukatuko ez badira ere, jakinarazten da abuztuan ez dela egingo inongo ariketarik, ezta beste jardunik ere, eta prozesuko epeei begira "baliogabea" (inhábil) aitortzen dela.
- 7.- Beste ariketak ( — Lehenengo ariketa. Izaera teorikoa duten bi atalek osatutakoa eta — Bigarren ariketa. Praktikoa.) irailera arte atzeratu dira eta horien datak uztailean zehar —ahal dela lehen hamabostaldian— zehaztu eta jakitera emango dira.

Bergara 2021eko ekainaren 10ean

